

ENPLEGU ZENTRU BERETZIETARAKO PLATAFORMA PROPOSAMENA

Azken hilabeteetan ELA, beste sindikatu batzuekin batera, Euskal Autonomi Erkidegoko enplegu zentro berezien lehen lan-hitzarmena lortzeko lanean ari da. Patronalarekin negoziaketa mahaia abiatzen saiatu gara eta pikutara bidali gaituzte.

ELAren ustez garrantzitsua da lehen aldiz enplegu zentro berezi guztiek oinarritzko lan hitzarmen propio bat izatea, ondoren enpresetan hobetu ahal izango dena. ELAren helburua da ez-gaitasunak dituzten langileak enpresa arruntetan lanean aritu daitezela beste langile guztiek dituzten lan baldintzekin.

Zoritxarrez langile askori administrazioek, enpresek eta enplegu zentro bereziek ez diete eskaintzen enpresa arruntetan egoteko aukera, eta askoz lan baldintza okerragoekin enplegu zentru berezietan egiten dute lan. ELAren ustez garrantzitsua da sektore guztiarentzat gutxieneko lan baldintza batzuk izatea.

ELAko militanteok gure aldarrikapenen proposamena landu dugu, bai administrazioei egin beharrekoak bai patronalei, eta langile guztiei ekarpenak egiteko aukera eman nahi dizuegu. Aldarrikapenak adostu eta gero mobilizazioekin hasi nahi dugulako. Hemen dituzue gure oinarritzko eskaera guztiak. Zuen iritzia edo ekarpenen bat egin nahi baduzue idatzi ebz-cee@ela.eus helbidera.

ESKAERA POLITIKOAK:

- Inklusiorako agentzia publiko bat sortzea. Helburuak:
 - Formazio programak sortzea langileen lan aukerak bermatzeko. Formazio hau enpresetan edo enpresatik kanpo eskaintzeko aukera.
 - Enpresetan laneratzeko aukerak aztertzeke talde bat sortzea. 50 langiletik gorako enpresa guztien azterketa egin eta legea zuzenean betetzeko proposamenak lantzeko helburua izan behar du talde honek. Enpresei legea betetzeko laguntza teknikoa eskaini beharko luke.
- Kontratazio publikorako legea aldatu eta bermatu kontratu publikoak jasotzen dituzten enpresek derrigorrez talde multifisziplinarra dutela.
- Dirulaguntza publikoak jasotzeko inklusio plan bat derrigorrez izan behar izatea.
- %7ko betekizuna betetzeko Lanpostuen Zerrendak aldatzea eta aurrez ez-gaitasun mota guztietarako. Funtzioak berregokitzea, hautaketa-prozesuak desgaitasun mota guztietara egokitzea
- Fundazio Publikoen kasuan dirulaguntzak handitu. Dirulaguntza kopurua ez-gaitasun larrienak artatzen dituzten enpresentzat. Era berean, dirulaguntzak handitu enpresa

arruntetarako zubilan handiena egiten duten enpresentzat. Dirulaguntzen bidez bermatu bizi-baldintza duinak.

HITZARMENERAKO ESKAERAK

1 Soldatak:

1.1 Gutxienekoa 21.000 euro.

1.2 Ez-gaitasun mailaren arabera eta ardura mailaren arabera hortik gorako eskala sortzea.

1.3 Irabazi asmoa duten enpresetan dagokion aktibitateko sektoreko hitzarmeneko soldatak. Azpikontrataren kasuan, zerbitzua ematen duen sektoreko soldatak, eta enpresa nagusia bada, egiten duen jarduera nagusiari dagozkion soldatak.

1.4 Trienioen araberako antzinakotasuna. Trienio bakoitzeko 25 euro.

1.5 Txandaka aritzeko plusa: Hilean 40 euro.

1.6 Jai-egunen plusa: orduko 20 euro. Lanaldi osoagatik ordainduko da, nahiz eta lanaldi osoa ez egin, edo lan egindako ordu bakoitza ordu eta erdiko lanaren balioa. Langileak erabaki dezan.

2 Lanaldia:

2.1 1592 lanordu urtean.

2.2 5 egun jarraian soilik lan egiteko aukera eta egunero 7 orduko lanaldia gehienez.

2.3 Gauean lan egindako ordu bakoitza ordu eta erdiko lanaren balioa (ez da ordaindua, lanaldia murriztea).

2.4 Ezin dira aparteko orduak egin, ezta ordu-poltsa erabiltzea ere.

3 Lan Osasuna:

3.1 Hitzarmenean dauden enpresa guztiek norberaren prebentzio zerbitzua izan behar dute eta lanpostuen egokitzapena egiteko zerbitzu multidisziplinarra. Zerbitzu hau irabazi asmorik gabeko eta EAEn 1.000 langile baino gehiago dituen enpresa batek ere eskaintzeko aukera jaso. Neurri hau betetzen ez duten enpresek langileei hilean 300 euroko soldata.

3.1.1 Prebentzio-zerbitzuaren ezaugarriak eta osaera:

3.1.1.1 ZATI MEDIKOA, lan medikuntzan espezializatutako medikua edo ergonomian espezializatutako medikua. Ergonomo 1, 1000 pertsonako.

3.1.1.2 ZATI TEKNIKOAK, goi-mailako prebentzio teknikari bat edo batzuk edo ergonomo bat. Tekniko 1, 500 pertsonako.

3.2 Kontratu publikoak jasotzen dituzten enpresetan hau indartuta. Ergonomoetan 1, 8000 pertsonako eta Teknikoetan 1, 400 pertsonako.

3.3 Adinaren arabera lanorduak murriztea, 55 urtetik aurrera, 1400 ordura iristen 60 urterekin. Borondatezko gaueko lana 55 urtetik aurrera.

3.4 Tratamenduetarako baimenak: 20 egun ordainduak, ordutik aurrera baimen ez ordaindua.

3.5 Familia-medikua edo espezialistarekin kontsultatzeko ordaindutako lizentzia, publikoa eta pribatua. Behar den denbora.

3.6 IT gaixotasun profesionala %100.

3.7 IT gaixotasun arrunta: %100 lehen 5 hilabeteetan.

3.8 Kontingentzia arrunten jarraipena MUTUArekin kontratatu ezin izatea eta azpikontratak ezta.

3.9 __ urtetik gorako langileentzako eta zenbait kolektiborentzako proba mediko espezifikoa. 6 hilabetetik gorako bajaren ondoren, baloratu ea beharrezkoa den lanpostua egokitzea.

3.10 Deskontuak ortopedietan, okulistan, fisioterapeutan, podologoan, audifonoetan...

3.11 Ortopedia espezialistatzat hartzea

3.12 Desgaitasun intelektuala, fisikoa, gaixotasun mentala, zentzumenezkoa... duten pertsonekin lan egiten duten eta bere ardurapean dauden langileei prestakuntza espezifikoa ematea. 50 formakuntza ordu gutzienez.

3.13 Desgaitasun larriagoak dituztenentzako %20ko kupoa gordetzea. Ez-gaitasun guztien inklusioa: Hitzarmen honen eraginpean dauden enpresa guztiek derrigorrez lanpostuen %10 ez gaitasun intelektuala duten langileentzat eta beste %10 ez-gaitasun mentala dutenentzat.

3.13.1 Honi buruzko informazioa ordezkaritza sindikalari 6 hilabetero.

3.13.2 Ordezkaritza sindikalik ez dagoen kasuetan Batzorde Paritarioko sindikatuei.

3.13.3 Hau betetzen ez duten enpresek hilean langile guztiei 300 euroko soldata gehigarria betekizuna bete artean.

4 Prekarietatea: Subrogazio eskubidea administrazio zein enpresa pribatuetan.

5 Aplikaziorik eza

5.1 EAEn (ORPRICCE indarrean jarri ondoren): Sektoreko enpresaren batek erabakitzen badu hitzarmen kolektibo hau ez aplikatzea denbora-epe jakin batean —arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla medio—, bere Batzorde Paritarioari eman behar dio erabakiaren berri, LEaren 82.3 artikulua aipatzen duen kontsulta-epea hasi baino ___ egun lehenago, gutxienez. Langileen ordezkariekin ados jarri ezean kontsulta-epean eta lanbide arteko itunetako gatazkak konpontzeko aplikagarri diren prozedurek desadostasuna konpondu ezean (arbitrajeari ekiteko bi alderdien berariazko baimena behar da), bi alderdien arteko adostasuna behar da (enpresaren ordezkaritza eta langileen ordezkartzaren gehiengoa) hitzarmenaren ez-aplikazioa ORPRICCEren edo, hala badagokio, CNCC Hitzarmen Kolektiboetarako Aholku Batzorde Nazionalaren esku jartzeko.

- 6 Ultraaktibitatea mugagabea. 202...(e)ko _____(e)ko 01etik 202...(e)ko _____(a)ren ...31ra arte izango da indarrean hitzarmen hau. Itundutako indarraldia amaitzean, automatikoki salatuko da hitzarmena, eta ___ hilabeteko epe luzaezinean ekin behar diote alderdiek hura berritzeko negoziazioari. Berariaz adostu da, LEaren 86.3 artikulua xedatzen duenari jarraikiz, hitzarmena salatu eta itundutako iraupena amaitzean eutsi egingo zaiola haren indarraldiari harik eta alderdi biek ordezeko bat sinatu arte.
- 7 Kontratazioa: Ez dugu utziko behin-behineko kontratuak 12 hilabetera luzatzen.
- 8 Euskara: Langile guztiek euskara ikasteko eskubidea. Sektoreko enpresek langileei euskara ikasteko behar diren baliabideak emanen dituzte, zehazki:
- 8.1 Lanorduak euskara ikasteko malgutzeko aukera.
- 8.2 Urtean 100 lanordu euskara ikasten dutenentzat.
- 8.3 Enpresetan euskara ikasteko taldeak antolatuko dira 100 langiletik gorako enpresetan.
- 9 Formazioa: Enpresa guztiek urtean 100 ordu langileko enpresa arrunt batean lan egin ahal izateko
- 10 Errelebo kontratua: Langileen eskubidea eta enpresak hori emateko betebeharra, behar diren baldintzak betetzen badira
- 11 Kilometraia: 0,44€ kilometroa.
- 12 Lizentziak eta baimenak:
- 12.1 Loturagramen arabera baimenak.
- 12.2 Hurbilekoen istripu eta ebakuntza larriak: 5 egun.
- 12.3 Lehen graduako senideen heriotza: 7 egun.

- 12.4 Heriotza 3. gradu arte: 5 egun.
- 12.5 Ingurukoen ezkontza: egun 1.
- 12.6 Jaio aurreko azterketak: Mugagabeak.
- 12.7 Lehen graduako senideei medikutara laguntzeko: Behar direnak.
- 12.8 Tramiteak egiteko denbora, notarioa, udaletxea...

13 Eskubide sindikalak:

- 13.1 40 ordu hilean delegatu mota guztiek eta pilagarriak.
- 13.2 Hilean 105 ordu sindikal pilatuta erabat liberatzea.

KATEGORIA / CATEGORÍA	2025 SAL. MENSUAL
Tailerreko gerentea / Gerente Talleres	7.934,71
Merkataritza zuzendaria / Director/a Comercial	5.643,15
Saileko zuzendaria / Director/a de División	5.139,01
Prestakuntza alorreko burua / Jefe/a Area Formación / Jefe de Calidad	4.864,02
Merkataritza teknikaria / Técnico Comercial	4.818,19
A tailerreko burua / Jefe/a Taller A	4.772,36
Erosketa burua / Jefe/a de Compras	4.726,52
B tailerreko burua-Prestakuntza Teknikaria / Jefe/a Taller B-Técnico de Formación	4.359,87
C tailerreko burua / Jefe/a Taller C	4.084,89
Tailerreko arduraduna / Encargado/a Taller	3.718,24
Prestakuntza bereziko teknikaria/tecnico Esp. Formación/Calidad/ATI/Compras	3.626,57
Arduraduna-Ofiziala Logistikoa / Encargado/a - Oficial logístico	3.305,76
Tailerreko administraria / Administrativo/a Talleres	2.755,78
Biltegiko langilea-Lerroko Laguntzailea / Almacenero/a-Auxiliar de Linea	2.251,64
Auxiliar Informatiko / Informatika Laguntzailea	2.343,30
Furgoneta gidaria/Chofer Furgoneta/Carretillero/Telef.Recepcionista	2.205,81
A langilea / Operario/a A	2.004,15
B langilea / Operario/a B	1.729,16
C langilea / Operario/a C	1.500,00
Adminst.Burua-RR.HH Zuzend.Nagusia atxikia / Director/a	6.193,12
Aministartivo/Director/a	
RR.HH/ Adjunto/a Dirección General	
Garapen berrietako burua / Jefe/a de Nuevos Desarrollos	5.139,01
ZEHARO proiektu burua / jefe/a proyecto ZEHARO	4.909,85
Medikua / Médico	4.864,02
Kontularitza burua / Jefe/a de Contabilidad	4.589,03
Informatika arduraduna / Responsable Informático	4.405,71
Aurrezaintza teknikaria / Técnico de Prevención	4.222,38
Administraziooko pertson.tekn / Tec. Adm. De Personal	3.855,73
Enplegu bilatzailea / Prospector/a de Empleo	3.764,07
Gizarte laguna-enplegu tek-erizaina-Zuzendaritza idazkaria / Asistente Social/ Tec.	3.626,57
De Empleo/ Enfermero-a/Secretario-a Dirección	
Informatika teknikaria / Técnico informático	3.305,76
Administraria-Administraria ofiziala Logistikoa / Administrativo/a-Oficial	2.984,94
Administrativo/a Logística	
Programador-Analista/ Analista Programatzailea	2.984,94
Laneko prestatzailea / Preparador/a Laboral / Brigada mantenimiento zerbitzu	2.664,12

2. mailako ofizial administraria / Oficial 2 ^a Administrativo/a	2.618,29
Produkzioko Laguntzailea/Auxiliar de Producción	2.389,13
Goienetxeko telefono zain-harreragilea-Administrari laguntzailea/Telef.	2.343,30
Metrologia teknikaria / Técnico Metrología	2.755,78
Makinista / Maquinista	2.159,97